

# Hartz zuria

**J**akingo duzuenez, eskimalak izotzez egindako etxeetan bizi dira eta ondo moldatzen dira toki hotzetan. Hala ere behin ume eskimal batek ez omen zuen etxerako biderik aurkitu eta galdu egin zen betirako. Inork etzekien umeak bizirik irautea lortu ote zuen. Inork etzuen berriro ikusi. Gurasoek beste seme bat ere bazuten eta tira, gaitzerdi.

Hura gertatu eta urte batzuetara, etxean hazitako semea, galdutako umearen anaia alegia, ehizara joan zen eta, itsasertzean zegoela, kraust! izotz zati handi bat puskatu eta plaust! uretara, eta mutikoa bertan harrapatuta geratu zen, lehorretik gero eta urrunago, azkenerako itsasoan galdu zen arte.

*"Eztago zereginik", esan zuten herriko zaharrek, "horrelakoetan inor ez da bizirik itzuli". Hura zoritxarra! Sorgindutako familia zirudien. Ezbeharra berriro etxe berean ate joka.*

Itsasontzi moduko izotz puska erraldoi hartan, iceberg hartan alegia, mutikoa ezezik hartz zuri bat ere bazegoen. Gaztea ikaratu egin zen hasieran, baina gero lagun handiak egin ziren. Atera kontuak, hartzak arrainak ematen zizkion jateko eta besarkatu ere egiten zuen mutikoa berotzeko. Baina harrigarriena hauxe: hartzak esan zion senitartekoak zirela. Senitartekoak?

Egun batzuk pasata, izotz zati hura berriro ere lehorrera hurbildu eta gazteak etxerantz abiatzeko modua izan zuen. Agurtzeko orduan hartz zuriak bere ile luze batzuk oparitu zizkion.

Gazteak gertatutako guztia zehatz-mehatz kontatu zuen herrian, baina hitz erdirik etzioten sinetsi. *"Zu ez zaude burutik sano, mutiko"* Hala ere, hartzaren ileak erakutsi zizkienean, denak aho zabalik. *"Ooooh! Egia al da orduan? Hartz zure familiakoa zen?"*

Senitartekoak ziren edo ez oraindik ez du inork argitu, baina antza denez hartzak anaia balitz bezala babestu zuen mutikoa